



Pil-pilean

Argia Soraluzeko hilabetekaria
2025eko iraila · 425 alea



**BENITO
ALTZARIAK
ATSEDEN
HARTZEKO
ORDUA**

Usoa
Elektrizitatea

**Argia dakargu
zure etxera!**

**Instalazioak
Konponketak
Inspekzioak**

624 005 827 
ERMUA



PIL-PILEAN 425

2025eko iraila

Azaleko argazkiaren egilea:

Fernan Oregi.

Aurkibidea

- | | | |
|----|--|---|
| 4 | Bote prontuan Hodei Calleja Cruz | IRITZIA |
| 6 | Begira Udako argazki lehiaketako irabazlea | 3 Neuretik Jondar Plata <i>Oporrak</i> |
| 8 | Zer berri Aktualitateko albisteak | 14 Gutunak Joxean Iñurrieta <i>Ibaia naturalizatze aldera</i> |
| 12 | Argazki bidez Mesedeetako jaiak | 14 Komiki tira |
| 16 | Erreportajea Itxi egin dute Benito Anaiak altzari denda | 15 Hausnarketa Garai bateko zein denda edo taberna duzu gogoan? |
| 22 | Kirola Iokin Arrillaga Sorako nagusien entrenatzaile | 15 Puntua Leire Peñalba <i>Tramite digitalak: herritarrentzat aukera ala oztopo?</i> |
| 24 | Kultura Munduko ipuinen eguna | |
| 26 | Zerbitzuak Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak... | |



Pil-pilean herri komunikabidea

TOKIKOM

Argitaratzailea

Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa

Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Ander Gomez
ander@pilpilean.eus

Publizitatea

publizitatea@pilpilean.eus

Zuzentzailea

Miren Gallastegi

Diseinua

Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa

Oier Larreategi
Inprimategia:
Gertu Koop.

Banaketa:

Pil-pilean Ekoizpena

Lege Gordailua:

SS-537-2000

Tirada:

2.100 ale

Babesleak

GOKI
erreformak

SORALUCE



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



SORALUZEKO UDALA

Oporrak



JONDAR PLATA

Etxean bueltan gara. Iratzargailua itzali, gosaldu, dutxa azkar bat eta lanera. Hasi da berriz errutina etengabe hau, dena doa berriz betiko abiadura bizian. Oraindik udak utzitako momentu, irudi, usain, kolore eta zapore fresko-freskoak gure buruan ditugula.

Batzuk zortea izan dugu eta egun batzuk herritik kanpo pasa ahal izan ditugu. Beste batzuk, berriz, herria zaintzen edo inguruetan igaro dituzte beraien udako oporrak. Bataz zein besteaz gozatzea tokatu zaigu noizbait, ez dago aukera txarrik denbora libre badugu, konpainia ona eta eguraldiak pixka bat laguntzen badu.

Hotela, apartamentua, landetxea, kanpina, furgoneta edo karabana. Bakoitzak gustuko duen forman egiten du turismoa. Mila leku eta ekintza daude aukeran gure egunak igarotzeko. Mendia, hondartza, hiriak edo urruti xamar geratzen diren herrialdeak.

Toki bat aukeratu, garraioa eta etxea deituko dugun hori lortu. Hori egindakoan tokiak eskaintzen dituen aukera guztiak ikusi eta ahalik eta plan gutxien lotu bertan egongo garen egunetarako. Inprobisazioaren seme-alabak izan eta, gure motorraren gasolina gogoa izanda, egun batzuetan dena ahazteko ahaleginak egin. Hau da errezeta pertsonala.

Aurten toki nahiko turistiko batean egon naiz, egia esanda leku zoragarria benetan, baina sentsazio bat burutik kentzea kosta zait zona turistikoan genbiltzanean. Ez dago tokiko komertzio edo jatetxerik, kartel denak ingelesez, jabeak atzerritarrek, langileak atzerritarrek eta bezeroak ere bai. Non daude bertakoak?

Leku zoragarri batean jaio eta ez izatea aukerarik han bizitzeko, lanik egiteko eta gutxiago etxe bat erosteko. Printzipioz zortea izan beharko zuena zoritxar bihurtzen da turismo mota zehatz bat zure zonaldeaz jabetzen denean. Bertako batzuekin gogoeta honetaz hitz egitea beraien etsipena sentitzea izan zen benetan.

Eskerrak bi edo hiru hiriz aparte badaudela herri ez turistikoak, non bertakoek euren ohiturak eta kultura partekatzeko gogoz dauden interesa baduzu. Benetan tokiaren historiaz eta esperientziaz guztiz gozatzeko ezinbestekoa pentsatzen zait. Tokiak politik izan ahal dira, baina pertsonak bihurtzen dituzte zoragarri.

**ZORTEA ZORITXAR
BIHURTZEN DA
TURISMO MOTA ZEHATZ
BAT ZURE ZONALDEAZ
JABETZEN DENEAN**

“Nire jatetxea eta nire izarra lortu nahi ditut”

ARGAZKIA ETA TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

Hodei Calleja Cruz (Soraluze, 2004) sukaldaria da. Bilboko Rauleaga jatetxean dihardu lanean, Michelin gidan aipamena duen Aitor Rauleaga chef-aren taldean. 16 urterekin hasi zen sukaldaritza ikasten Gamarran eta EHUren Leioako campusean egin zuen goi maila gero. Bide propioa egin nahiko luke.

Oso gazte hasi zinen sukaldaritza ikasten.

Amak beti kozinatu du etxeko jana. Umetan jatea oso gustuko nuen, txapiroak, bakailaoa... Amari sukaldean laguntzen nion, telebistan *Masterchef*, *Pesadilla en la cocina*... ikusten nituen. Baina batez ere ama izan dut inspirazio-iturri. Institutuko orientatzaileari oso argi esan nion *sukaldaritza ikasi behar dut*; berak ezetz, egiteko batxilergoa, eta nik ezetz, nik sukaldaritza. 14-15 urte nituen. 16 urterekin Gamarrako Ostalaritza Eskolara joan nintzen. Pisua hartu eta bakarrik bizitzen hasi nintzen. Horrek ere esnatzen zaitu munduan. Eta ikasteko 40 orduan lan egin beharrak ere bai.

Soraluzen ibili zara lanean eta praktiketan, ezta?

16 urterekin Itxaropenan laguntzen, Falirekin. Gero futbol zelaian eta geroago, Batzokian, Bergarakoekin. Baina Batzokian karta eginda eman zidaten. Nik, berriz, nire gauzak egin nahi nituen; gauza handiak egin nahi ditut.

Zer dira gauza handiak?

Nire jatetxea eta nire izarra lortu nahi ditut. Zaila da? Oso, baina gaztea naiz oraindik.

Sukaldari askok, aldiz, ez dute izarrik nahi...

Izarra lortzea zaila da, baina zailagoa da mantentzea; mailari eutsi egin behar zaio denbora guztian. Aldiz, behin, egun txarra baduzu eta justu kritikoa badator, kendu egiten dizute, nahiz eta egun txarra behin bakarrik izan.

Zuk zergatik nahi duzu izarra?

Sukaldaritza goi-mailan sartzea delako. Nagusiekin jokatzeko. Erronka pertsonala litzateke lortzea eta gero, mantentzen badut ondo, eta bestela, ba bueno. Ordu asko sartu behar dira horretarako, eta hori baloratu egin behar da ingurukoekin, familiarekin... Baina prestigioa ematen du eta, izar

bat edo aipamena edukitzeak esan nahi du horra bazoaz txarto ez duzula jango, zerbitzua ona izango dela eta lekua ondo zainduta egongo dela.

Non izango zenuke jatetxea?

40 urte izan eta sukaldaritzan jarraituko banu, Txurrukan. Inguruko jatetxe ospetsuenetarikoa da. Niretzat erreferentziakoa da. Bestela inguruko hiri batean, Donostian edo Bilbon; Gasteizen ez, hotz handia egiten du han.

Zelako jatetxea nahiko zenuke?

Agian jatetxe txikia, nik egingo nituzke gauza gehienak eta gustatuko litzaidake hemengo sukalde egitea. Platerak asko aldatu gabe baina nire ukitu pertsonala emanda.

Lanbideak gogor fama du, ba.

Oraindik gogorragoa da, ordu asko, ordutegi txarra, oporrak besteak lanean ari direnean, presioa, estresa... Bakarrik daukat jai domekak. Gustatzen zait pentsatzea 20 urte barru apreziatuko dudala orain jasotzen nabilen egurra.

Hala ere, bogan dago sukaldaritza.

Ona bazara ondo, baina gehienetan aldi baterako lanak dira.

Telebistan sukaldari mordoak dabil; ez duzu zure burua hor ikusten?

Egon nintzen *Sukaldarien Ligan*, baina nire txanda zenean 40ko sukarrarekin egon nintzen. Ingresatuta bukatu nuen. Ondo egon banintz, akaso gustatuko litzaidake, ze sukaldari izateaz aparte, txantxazalea ere banaiz... Eta bestela, irakasle, Gamarrako eskolan.

Zuri nongo sukaldeak gustatzen zaizu gehien?

Hemengoa, eta Mexikoko sukaldearen oso zalea ere banaiz. Egiten ditut noizean behin hango errezetak.

Zein da zure espezialitatea?

Patata-tortilla -tipularekin- eta kozinatzen hasten banaiz, behi buztana, karrillerak... gisatu bat. Postrea: gazta-tarta. Batzokian fama handia hartu zuen. Jaietan 8-10 tarta egin nituen. Nire sukaldeko lehen jefea ekarri nuen laguntzera.

Zer duzu gustukoen jatea?

Gauza asko baina nire aitaren dilistak eta idi-txuleta, seguru.







Kjeragbulten

ARGAZKIA: AMAIA AMOR

TESTUA: EGOTZ UNAMUNO

Norvegian, Kjerag mendian dagoen Kjeragbulten haitzaren gainean atera zuen argazkiarekin irabazi du Amaia Amorrekin Plaentxia.eus-en udako argazki lehiaketa. “Uztailean Norvegiara iritsi eta egin genuen lehen ibilbidea izan zen. Kjerag mendia (1100 m) herrialdearen hegoaldeko Lisejord-eko fiordoetan dago. Igoeran oso giro txarra tokatu zitzaigun baina bertara heldu ginenean, eguraldia argitu eta bat-batean begien aurrean bistaratu zitzaigun haitza, azpian fiordoa eta sekulako ur jauzia. Ikusgarria!”.

Jon eskalatzailea da eta zailtasun handirik gabe iritsi zen harrira. “Egia esan alde batetik bide moduko bat dago eta Jonen ostean, neu ere joan nintzen. Orain pentsatuta, ez dakit berriz joango nintzatekeen (barreak), 984 metroko erorketa du fiordoraino. Hori bai, leku zoragarria da!”.

Ibai-paisaiaren plan estrategikoa abian da

HERRITARREK ZUZENEKO PARTAIDETZA IZANGO DUTE PROZESU OSOAN

TESTUA ETA ARGAZKIA UBANE MADERA

Soraluzeko Udalak herriko ibai-paisaiaren azterketa integrala egiteko prozesua abiarazi du. Helburua da ibai-paisaia kontserbatzeko, leheneratzeko eta berroneratzeko Plan Estrategikoa garatzea. Azaldutakoaren arabera, "egingo diren esku-hartzeak ibaiaren inguruko ikuspegi integrala bermatu nahi du, hau da, ingurumen, hidraulika, kultura, hirigintza, gizarte edota historia ikuspegiak barne hartuko ditu".

Adituz osatutako lantaldea

Plan estrategikoko horren lanketa koordinatuko du Lara del Valle arkitekto eta paisajistak, eta, beste hainbat alorretako hiru aditurekin osatuko du lan-taldea, plan estrategikoari ikuspegi integral hori emateko: Aida Lopez da Ingurumen zientzietan lizentziaduna, paisajista eta besteak beste, prozesu parte-hartzaileetan aditua, del Vallerekin batera, proiektuaren pisurik handiena hartuko duena; Urtzi Llano da arkitekto doktorea eta ondare industrialean aditua eta Alex Gaztañaga da historialari eta paisajista eta Bilboko ondare industria-meatzeen tesia egiten diharduena.

Hiru fase

Lara del Valle koordinatzaileak esandakoaren arabera, hiru fase izango ditu planak: aurre-lanketa, diagnostikoa eta masterplanaren definizioa.



Ibaia zubitik begiratuta.

Orain, aurre-lanketa fasean daude. Aurrekariak, ibaiari buruzko testigantzak eta informazio orokorra jaso dute. Hori guztia analizatzen ari dira teknikariak. Gero etorriko da diagnostikoaren fasea. Hor, analisi integrala oinarri, diagnostikoa egin eta zenbait balore, gatazka eta aukera identifikatuko dituzte, helburu zehatzagoak ezartzeko. Eta planaren azken fasean, masterplana definituko da.

Herritarren partaidetza handia

Del Vallek esandakoaren arabera, fase guztietan transbertsalki bultzatuko da

IBAI PAISAIA BERRONERATZEAK ZUZENEAN ERAGITEN DU BIZIDUNEN ONGIZATEAN

herritarren eta adituen partaidetza, eta, besteak beste, proposatu behar dute prozesu parte-hartzaile didaktiko eta interaktiboa egitea. Horretarako, ibilbide didaktikoak diseinatuko dituzte bertan jarduteko aukera potentzialak dituzten lekuetatik. Del Vallek esplikaturakoaren arabera, metodologia hori dagoeneko arrakastaz jarri dute praktikan Zadorra, Urumea eta Nerbioi ibaietan. Diote ibilbide didaktikoei esker oso gauza indartsuak azaleratu direla eta "begirada lokal" horrek, "plan estrategikoa errealitate lokalean aterrizatu eragiten" duela. Gaineratu duenez, azkenik lantaldeak eratu nahi dituzte adituekin, herritarrekin zein teknikariek. Helburua da espazio potentzial moduan identifikatu diren horietarako jarduerak proposatzea.

Del Vallek eta bere lantaldeak, oro har, lanerako potentzial handia ikusten du Soraluzen, hobetzeko tarte handia. Halaber, balioan jarri dute Soraluze moduko herri txiki batean halako plan bat garatzeko pausoa ematea; bere esanetan, Europan ez bezala, EAEn bakarrik zenbait hiri handiek eman dute halako pausoa. Halaber, adituak gogora ekarri du ibai paisaia berroneratzeak zuzenean eragiten duela naturaren zein inguruko bizidunen -animaliak zein pertsonak- ongizatean eta bizi kalitatean.

Oleako eta Zuloagako presetan lanean

Irailaren 1ean hasi ziren Zuloagako presa osorik eta Oleako presa partzialki eraisteko obrak. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Saileko Obra Hidraulikoetako zuzendaritza ari da obrak gidatzen, 141.221,05 eurotako aurrekontuarekin. Lanen esleipena duen Lurkide enpresak gehienez jota lau hilabete ditu bukatzeko.

Emaria libre

Ibaiak naturalizatzeko, lehengoratzeko eta iragazkortzeko helburuarekin ari dira, besteak beste, presetan jarduketak egiten, Europatik datorren legediarekin bat eginez, 2020-2030 agendaren plan estrategikoaren baitan.

Gipuzkoako Diputazioko Obra Hidraulikoen zuzendaritzatik esplikatatukoaren arabera, presek zuzenean eragiten dute ibaiko arrainen eta batez ere, sedimentuen eta emariaren joan-etorrian. Sedimentuen eta emariaren kasuan, berriz, horiek zuzeneko eragina dute ibaiko floraren eta faunaren ekosisteman. "Eta presa bat izanez gero, emaria ez dago aske", azaldu dute.

Zuloagakoa osorik

Soraluzeko kasuan, Zuloagako presa osorik eraitsiko dute. Zehatzago esanda, hura, presa baino hodi zahar baten hormigoizko babesa da. Egunotan, haren egoera zein den ikusteko kata bat egin dute eta emaitzen arabera, ikusi



Oleako presako obra, atzo, eguna.

dute hormigoia tutuari pegatuta dagoela eta gainetik duela pobregoa den hormigoizko babesa. Esandakoaren arabera, datozen egunotan, gainaldeko babes hori kentzen hasiko dira, dituen ezaugarriengatik polikiago lan egingo dute, eta betiere, eguraldiaren arabera.

Oleakoa partzialki

Oleako presari dagokionez, hura partzialki eraisten ari dira. Zubiaren erdiko zutoinetik bidegorri alderako presaren erdia bota egin dute -estribua

lagata-. Justu aste honetan bukatu dituzte botatze-lanak. Errekalde alderako presaren beste erdia, berriz, bere horretan laga dute, Ondareko departamentukoekin horrela adostuta, esplikatu dutenez. Arkeolan Fundazioko arkeologoa ere izan da lanak gainbegiratzen, eraisten ari diren paretak balio arkeologikorik ez duela ziurtatzeko.

Egunotan, atagia zabaldu eta lekuz aldatu dute eta orain, eraitsi barik laga duten presaren zatia guztiz bistan da, ur barik. Aldi berean, presaren estribua egonkortzeko lanak egiten ere badabiltza. Behin ibaian eta presan egin beharrekoak bukatuta, presatik botatako materiala erretiratzeko lanak hasiko dituzte.

OLEAKO PRESA
PARTZIALKI ERAISTEN
ARI DIRA, ERDIA LAGA
EGINGO DUTE



Maitasunez betetako agur bat, ilusioz beteriko etorkizun bat

Emozio handiarekin (eta nostalgia apur batekin), zuekin partekatu nahi dut proiektu profesional berri baterantz pauso bat ematea erabaki dudala. Askok dakizuen arren 2015az geroztik esteticista tituluduna naizela, erosotasunagatik eta negozioarekiko maitasunagatik, inoiz ez nintzen jauzia ematera ausartu. Orain arte.

2023an nire herrialdera bidaiatu nuen, Brasilerara, eta nazioarteko akademia batean mikroblandingean trebatu nintzen. Itzuli nintzenean, estetika aurreratuan trebatzen jarraitu nuen, eta orain nire benetako ametsaren aldeko apustua egiteko unea iritsi dela sentitzen dut.

Horregatik, bihotza oroitzapenez eta esker onez beterik, nire denda maitea oso berezia den norbaiten esku uzten dut: nire koinata. Berak jarraituko du soraluzetarrei betidanik eskaini nahi izan diedan maitasun eta dedikazio guztiarekin. Irailaren 30era arte egongo naiz berarekin, xehe-

tasun guztiak erakusten, eta 31n ofizialki kapitulu hau itxiko dut.

Ez da erabaki erraza izan. Denbora luzez atzeratu nuen, une egokiaren zain... eta azkenean iritsi da. Urte hauetan guztietan nire onena eman izanaren pozarekin noa, eta onena oraindik etortzeko dagoelako ziurtasunarekin.

Eskerrak eman nahi dizkizuet, bihotzez, horrenbeste maitasun, barre, besarkada, malko partekatu eta jasotako babes guztiarengatik. Une ahaztezin ez betetako motxila eramango dut. Zuetako askok esan didazuen bezala: "Zurekin gaude"... eta horrek ez du preziorik!

Amets bat ez da gauzatzen, amets bat LANDU EGITEN DA... eta horretara noa, ilusioz, indarrez eta hazten jarraitzeko gogo handiz.

Hilaren azken egunean dendatik pasatzera gonbidatzen zaituztet, agur-argazki bat egin eta nire lagun guztien oroigarri polit bat eramateko.

***Eskerrik asko bihotz-bihotzez, Soraluze.
Muxu handi bat eta besarkada bat denori!***

Soraluzeko Kooperatiba Elkarteak
1910ak zahar

Arraindegia, janaria, erropak, etxeko tresnak, etxera eramateko zerbitzua

Astelehenetik ostiralera:
08:30 - 12:30 eta 12:00 - 19:45
Larunbata: 08:30 - 11:00

Kalebarren 4
Tel.: 943 75 13 45

Mimara
Bosapaindegia
Esaterika
Solariuma

Gudoluz 6, Leioa Tel.: 943 75 13 13 - 682 31 14 04

MGS Seguros

Veronica Gallarraga
Gertuko eta segurua

Astelehenetik ostiralera:
10:00 - 15:30 eta 17:00 - 18:30

Santa Ana 33
Tel.: 645 744 055

TXURITXU GOZOTEGIA

Astelehenetik ostiralera:
08:30-13:00 eta 16:30-20:30

Larunbata: 08:30-13:00
igandeak: 08:30-14:30

Gosariak, oja, gerria, pastelak, borbotak...
Etxera eramateko zerbitzua

Tel. 943 75 24 43

ION MURGIZU BAKAIKOA
PINTOREA

amuna dekorazioak industria

Tel. 943 75 13 24 Mug. 652 77 70 30

Griado
Fruitategia Urdaitegia

- Enkarguak Whatsapppe
- Etxerako zerbitzua
- Iberikoak & delicatessen

Astelehenetik ostiralera:
09:00-13:00 eta 17:00-20:00
Larunbata: 09:00-13:00

629 918 536

Txoko

Eguneko menuak, plater konbinatuak, hamburgerak, ogitarlekoak, noliak, pizza, gosaria...

Enkarguak opten dira
Tel. 943 75 17 03

MENDIZABAL
okindegia

Oja - Prentsa - Gosariak

Astelehenetik ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00

Larunbata eta igandeak:
08:30 - 13:15

Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99

ODRI
ATEAK ETA LEIHOAK

Mota guztietako leihoak, pertsiak, atek, barandak salmenta eta konponketa

ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA

T. 662 234 609
Bazur Etxeko Kalea 2 - 20080 SORALUZE
e-mail: odrileihoa@gmail.com

MIKEL IÑIGUEZ
DENTAL STUDIO

ODONTOLOGIA DIGITALA
INPLANTOLOGIA
PERICOONTZIA
AHO KIRURGIA
AHO-ERREHABILITAZIOA ETA ESTETIKA
SEDAZIO KONTZIENTEA
CBCT 3D TEKNOLOGIA

MP: 61125

WWW.IÑIGUEZDENTALSTUDIO.COM
INIGUEZ_DENTALSTUDIO

KALEBARREN PLAZA 4W. BEHEA / 20070 ELGOIBAR

616 68 03 11

Jaietan guztion 'barrixo'

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: U.M. ETA ANDER GOMEZ

Euria, haizea, txingorra, oinaztuak eta trumoiak. Denetik izan da Mesedeetako jaietan. Baina beste behin, hasi eta bukatu, bikain egin dira. Denetik jateko aukera izan da; dantzan egiteko, jolasteko, kirolean jarduteko, tokan elkar-pikerako, musikaz gozatzeko eta gau bustiei aurre eginez goizaldeko ordu txikiak arte parrandan ibiltzeko. Egundoko lana hartuta prestatzen dute hori guztia auzotarrek, eta lortzen dute hiru egunez, soraluzetar guztien *barrixo* bilakatzea Errekalde-Txurruken. Sikiera, eurak ere gustura geratu dira emaitzarekin: "Aurtengo Mesedeetako jaiak ere joan zaizkigu; baina ezin agur esan eskerrak eman gabe herritar orori, era batera edo bestera lagundu duzenoi. Nahiz eta eguraldiak gauetan lagundu ez, ezin uka festak ondo joan zaizkigula. Bene-benetan eskerrik asko".





GUTUNAK

Ibaia naturalizatze aldera

JOXEAN IÑURRIETA

SORALUZE

Hiztegiak dio *ibaia ur korronte naturala* dela, eta, presek ur geldoak sortzen dituzte. Horregatik diot Gure Deba Ibaikoek dagoeneko erabilerarik ez duten presen inguruan “gure presak ez ikutu” diotenean, ibaiaren aurka ari direla. Horregatik deritzot taldearen izena desegokia dela. Bestetik Deba ibaia ez da plazentziatarrona; jaberik balu, Gatzagatik Debarainokoena litzateke. Prozesua alderantziz egin dute: lehenik erabaki eta gero hura nola “jantzi” asmatzen saiatu. Eta ez dute lortu inongo adituk euren argudioak babesterik. Beti egoten dira diskoloak baina oraingoan ez dute aurkitu; ez saiatu ez direlako, langile amorratuak baitira.

Uda partean gehien bat ur geldo horietan eutrofizazioa sortzen da, algen antzeko begetazioa, urari oxigenoa kendu eta kiratsa eta metano pozoitsua aireratzen duena. Apenas bizidunik baldintza horietan.

Hala ere hamaika herritar konbentzitu dutela dirudi erabilerarik gabeko presak mantentzearen aldeko diskurtsoarekin. Batzuei, batez ere, hirugarren adinekoei, pena ematen die presak eraistek dakarren paisaia aldatetak, haurtzaroan edota gaztetan ibaian jolasten zirelako. Neu ere hirugarren adinekoa naiz eta memoria eta bizipen haiek inork ez dizkigu aldatuko. Gaurko gazte eta umeek aldiz, ez dute ibaiarekin horrelako loturarik. Ez diezaiegun gure motxilen zamarik gehitu.

Martxan dira Oleako presa partzialki eraisteko lanak. Hasiera baten paisaiaren

aldaketa arraroa suertatuko zaigu baina ohituko gara, beste hainbat aldaketekin ohitu garen bezala. Aurreko egoeraren eta berriaren aldea konparatzeko zazpi urte inguru beharko dira, horixe baita begetazio eta habitat berria egonkortzeko aurreikusi duten denbora. Ez dezagun lanok amaitu eta hurrengo egunean konparazioa edo ebaluaziorik egin.

Presak eraitsita, ufala datorrenean, uraren maila baxuagoa izango da. Arrainek eta faunak errazago egingo dute ibaian gora eta behera. Ura, korronte etengabeari esker, oxigenatu egingo da eta habitat horrek hobera egingo du. Ibaiak dakartzan sedimentuek libre izango dute beherako bidea eta presak ez ditu “tronbo” baten antzera geldituko. Hori bai, pena da Europak ordainduko zukeena orain gure gertuagoko erakundeen kontu izatea.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

KOMIKI TIRA

WAF
WAF

...PALESTINA
PALESTINA...

HAUSNARKETA

Garai bateko zein denda edo taberna duzu gogoan?

Denden itxierak abiapuntu, garai bateko komertzioez galdetu dugu.



**NEREA
ORBEA**

"Marcial Txurruka burdindegia oso kurioa zen, sartu eta mostradore luzea zuen, eta, beheko pisua. Gustuko nuen. Benitoren denda, Gabolatsekoa, goian mertzeria eta behean janari-denda. Beste janari-denda bat zen Eugeni eta ondoan Zapateria Blanco bere usain gozoarekin..."



**GORETI
GOIOZANA**

"Marimarren harategia, Santa Anako burdindegia, Berruetaren argazki-denda, gero han bertan egon zen bideo-kluba, zubiko mertzeria... Tabernen artetik gogoan dut Aurresku, hara txanpiak eta tortilla patata jatera joaten ginen. Faltan igartzen dira".



**BITTOR
MURGUZUR**

"18 bat urte daramatzat hemen bizitzen. Gogoan dut Santa Anako burdindegia, Mendata taberna, Aurresku... Eta goiko azoka-plaza, arrandegi eta loradenda eta guzti. Gu joaten ginen taberna zein denda horietara. Herriak beherakada handia izan du".



**JUAN ANTONIO
GARITANO**

"Lehen harategi asko zegoen, zazpi edo zortzi, kale guztietan bat eta orain herri guztirako bi bakarrik daude. Hori igartzen dut. Eta banketxeak edo Kutxak, joaten zara eta bakarra daukazu. Taberna ere asko egon dira herrian, 42 denera, Txurrukenetik hasita".

PUNTUA



LEIRE PEÑALBA

Tramite digitalak: herritarrentzat aukera ala oztopo?

Administrazioarekin harremana gero eta digitalagoa bihurtu den arren, herritarrentzat sarri oztopo bihurtu da beharrezko tramiteak egitea. Askotan, izapide simple batek labirinto burokratiko batean galtzea dirudi: orrialde ulertezinak, formulario konplexuak, eta batez ere, informazio eskas edo kontraesankorra.

Ez da soilik adinekoen arazoa; gazte askok ez dute argi zein urrats egin behar dituzten. Herritarrok laguntza eskatzen dugunean, askotan telefono batean itxaronaldian galtzen gara, edo bulego batean arreta eskasa jasotzen dugu. Digitalizazioak aukera handiak ekarri baditu ere, ezin du errealitatea ezkutatu: sarritan pertsona abandonatuta sentitzen da.

Entitate publikoen betebeharra da ez soilik tramiteak eskaintzea, baizik eta gizabanakoei bidea erraztea, argi azaltzea eta benetako laguntza ematea. Bestela, administrazioa hurbildu beharrean, urrundu egiten da, eta konfiantza galtzen da.

Ez dugu traba gehiagorik nahi; gardentasuna, hurbiltasuna eta laguntza eraginkorra, besterik ez. Gehiegi eskatzea al da?



"Mertzeria eta janari-denda izatetik altzari-dendara pasa ginen"

JESUS JUAN BENITO ETA BEA MAIZTEGI BENITO ALTZARIAK

la sei hamarkadatan herriko eta kanpoko etxe asko jantzi dituen Benito Altzariak negozioak atea itxi du. Jesus Juan Benitoren eta Bea Maiztegiren eskutik egin ditu azken urteak. Altzari dendan bizi izandako horren errepasoa konpartitu dute datozen orriotan.

Testua: **Ubane Madera Zangitu**. Argazkiak: **Fernan Oregi eta Benito-Maiztegi familia**.

Uztaillean itxi zuten Benito Anaiak altzari-denda, erretiroarengatik. 1968an hasita, 57 urteko ibilbidea egin du negozio horrek udalerrian, beti Benito familiaren eskutik. Jesus Juan Benito (Soraluze, 1958) eta Bea Maiztegi (Soraluze, 1961) senar-emazteak izan ditu azken maizter Santa Ana kaleko saltokiak. Bien artean partekatu dute dendaren historia, hasiera, ibilbidea, unerik gozoenak, mingotsenak... halaber, kontakizun horren bitartez, zeharkako atzera begiratutxoa ere egiten da datozen orriotan.

Zer moduz erretiroaren lehen hilabetean?

Bea oraindik lanean dago, zenbakiak ez dira bukatu eta beste urtebetez egongo da atzeko lanak egiten. Eta neu, ba aterrizatzen oraindik. Abuztuan, betiko moduan, oporrak izan ditugu eta haien ondoren, orain hasi naiz benetan ikusten.

2024ko ekainean iragarri zenuten ixteko asmoa; zelan bizi izan duzue azken urtea?

Urtea azkar pasatu zaigu. Jendeak kartelak ikusi zituen itxiera iragartzen, baina orain, benetan

itxita ikusi dutenean etorri da penarekin.

Adibidez etorri zaizkigu esaten, *zer, orain almohada bat erosteko Eibarrera joan beharko naiz?* eta halakoak. Baina egia esan, jendea penaz etortzeak ere poza ematen dizu, guretzat, aitortza modukoa delako.

Lokal ederra da hau, zer gertatuko da honekin?

Guretzat onena osorik saltzea litzateke eta gainera, saltzen badiogu altzari-dendarekin jarraituko duen norbaiti, ba hobe.

Etxekoak ez dira animatu negozioarekin segitzera...

Ez, beste bide bat hartu dute.

Izan ere, gero eta zailagoa da herri txiki batean dendari txiki izatea, ala?

Oso, jendeak gero eta gehiago Internetez erosten du edo Ikea, Leroy Merlin eta halakoetara joaten da, eta, denda txikiak... ba hori.

Batik bat, noiz hasi zineten igartzen salmenta edo erosle gutxitzea?

Gehien 2008ko krisitik aurrera hasi zen, eta, oraindik, hori mantendu egiten da. Ikusten da urtetik urtera altzari denda pila bat ixten direla. Adibidez, Eibarren denda bakarra dago eta



Jesus Juan Benito eta Bea Maiztegi altzari dendan.

Bergaran bi gelditzen dira bakarrik. Dekorazio-interiorismo estudioak eta halakoak bai, horiek badaude; eta, badaude, baita ere, atsedenarekin lotutako dendak, koltxoi dendak... Baina altzari denda denetarikoak ez. Egoera zaila da eta gainera, ez dago belaunaldi aldaketarik.

Badirudi gazteek ez dutela halako lanik nahi.

Ikusi ondoren norbere gurasoak zelan bizi izan diren, ba ez. Gu oporretan, asteburuetan, etxean... ere lanean ibili izan gara. Gazteek, berriz, nahi dutena da euren zortzi orduak egin, barikua iritsi eta astelehenera arte ahaztu.

Zuena izan den altzari-negozioari dagokionez, duela 30 urtetik gaur egunera zertan aldatu dira jendearen kontsumo ohiturak?

Lehenago jendeak altzariak erosten zituen bizi guztirako pentsatzen. Horren ondorioz, altzari sendoak saltzen ziren, gogorak, egur-txapazkoak, kalitate handiagokoak. Orain, berriz, jendea gehiago doa altzari funtzionalagoetara eta minimalistetara, lau gauza ipini eta listo, eta, merkera ere bai, melamina da gehien saltzen den altzarien materiala. Kontua ez da altzari hori txarra denik, bakarrik joera aldatu egin dela.

Gaur egun zeintzuk dira altzari ezinbestekoak?

Azken urteotan asko saltzen ari dira deskantsurako altzariak -sofak, koltxoiak...- eta gazteendako altzariak, jubenilak ere bai. Batetik, erosotasunari garrantzia ematen zaio, loari, eta sofan ordu asko pasatzen ditugunez, haiei ere bai. Eta bestetik, umeendako altzariei, jubenilei ere ematen zaie garrantzia. Orain, umeari derrigor jarri behar diozu bere gela. Altzari dendaren garai onetan, berriz, denetik saltzen zen: senar-emazteendako logelak, jubenilak, saloiak, sarrerako altzariak... orain, adibidez, sarrerako altzariak apenas saltzen dira. Baina lehen-lehen denetik saltzen zen.

Kontuak kontu, zuek urte luzez eutsi diozue altzarien negozioari. Zelan hasi zen kontua?

Guk Gabolats kalearen 28an geneukan bi solairuko lokala, goiko pisuan drogeria eta mertzeria eta azpian janari-denda, Justoren bodegaren aurrean zegoen. Janari-dendan ez ziren gauzak ondo-ondo irten eta aitak aldaketa egin zuen amaren lehengusu batek esanda; hark ere altzari-denda zuen eta horrela hasi ziren Soraluzeko altzari-dendarekin, janari-dendaren



Altzari denda barrutik.



Altzari dendan salgai zituzten hainbat altzari.

negozioari buelta emateko. Hori izan zen 1968-1969an.

Aita eta ama, biak egoten ziren?

Hasieran Jose Benito, aita, eta Igone Arluziaga, ama, egoten ziren, baina altzariekin gehienbat aita ibiltzen zen. Hura berez zen komertziala, lehen *biajante* esaten zitzaion, torlojuen komertziala zen. Baina 7 seme-alabako familia ateratzeko asko behar da eta nire aitak egunez kanpoan egiten zuen lan eta 18:00etarako-edo herrira bueltatzen zenean, altzarien salmentak eta muntatze-lanak egiten zituen. Muntatzen laguntzeko beste pertsona batzuk zituen hartuta; haiek ere tailerrean lan egiten zuten eta handik irtetea etortzen ziren altzariak entregatzera eta muntatzera. Eta nik, berriz, 14 urterekin, oporretan eta larunbatetan-eta laguntzen nuen. Gero, 1976an, 18 urterekin hasi nintzen egun osoz lanean.

Gabolatsen hasi eta Santa Anan bukatu zenuten.

Bai, eta tartean Errekalden ere bai. Herrian bost lekutan izan ditugu saltokiak eta erakusketak. Gabolatsen, kalearen 28ko altzarien saltokiarekin batera, Moises Altunaren harategiaren ondoan eduki genuen altzarien erakusketa, eta haren atzeko aldea biltegi moduan erabiltzen genuen, koltxoak-eta gordetzeko. Gero, Gabolatsetik Errekaldera joan ginen, eta, azkenik Santa Anako lokalera. Santa Anan geundela, Kalebarrenen sukaldeen eta horma-armairuen erakusketa txiki bat ere izan genuen, eta aldi berean, Bergaran, deskantsuarekin lotutako denda bat, Lokartu izena zuen. Han, adibidez, saltzaile moduan Igone Odriozola egoten zen.

Zergatik horrenbeste leku aldaketa?

Gabolatsetik Errekaldera joan ginen erakusketa handiagoa izateko. Aldaketa handia izan zen, sasoi hartan Errekaldera joatea herriko beste puntara joatea zen, erdigunetik irtetea bekatua zen. Baina hango lokalak handiagoa zen eta argitsuak ere bai. Gero, Santa Anara etorri ginen 1986an. Baina hona Pello anaia eta biok etorri ginen. Errekaldeko saltokian geundela, urteak aurrera zihoazela, Pellok eta biok aitari planteatu genion beste denda handiago bat jartzea. Beti beldurrez ibiltzen ginen, ea kanpotik kompetentziaren bat etorriko zen eta horregatik planteatu genion ideia. Aitak esan zuen bere adinarekin ez zela halakoetan sartuko, eta Pello eta neu sartu ginen denda berrian.

Noiz izan zuen altzari-dendak sasoirik gorenena?

Egia esan, 1986tik 2005-2006ra arte ondo, oso ondo ibili ginen, lan faltarik ez zegoen, aldrebes, lan asko zegoen. Egoera hori berdina izan zen altzari-denda guztietan, eta, orokorrean, besteetan ere bai.

Zelakoa zen egunerokoa?

Orduan salmenta eta muntatze-lan asko zegoen. Garai hartan muntatze-lanetarako hiru-lau pertsona ginen eta dendan bi eta hiru ere egon izan dira. Astelehenetik larunbatera egiten genuen lan, domekak bakarrik jai eta larunbatetan goizez eta arratsaldez izaten genuen zabalik. Gero, zubi guztietan ere zabaltzen genuen Iratxe arrebak eta biok txandaka, eta oporrak abuztuan izaten ziren, hasieran bi aste bakarrik eta gero hiru aste. Aste Santua, berriz, beti hartu dugu jai. **Ordutegia ere desberdina zen?**



Gabolats kalean izan zuten erakusketa.



Iratxe Benito Bergarako 'Lokartu' dendan.

**"ALTZARI-DENDA PILOA IXTEN DOAZ;
EIBARREN BAKARRA GERATZEN DA
ETA BERGARAN BI"**

**"LEHENAGO JENDEAK EROSTEN
ZITUEN ALTZARIAK BIZI GUZTIRAKO
PENTSATZEN"**

**"1986TIK 2005-2006RAINO OSO
ONDO IBILI GINEN, BAINA AZKEN 17
URTEAK OSO GOGORRAK IZAN DIRA"**

Denda 09:30etik 12:30era eta 16:30etik 20:30era izaten zen zabalik, eta gero pasatu ginen 20:00etan ixtera, zeren 20:30ean ixten genuenean, jendea sartzen zitzaizun 20:15ean eta 21:00etan itxi ezinda ibiltzen ginen. Muntaketari dagokionez, hark ez zuen ordutegirik. Larunbatetan, berriz, 09:30etik 12:30ak arte eta 17:00etatik 20:00ak arte. Nik -Jesus Juan- nire semeen multikirolik ez dut batere ikusi, bakarrik domeketan mendi irteeretara joaten ginenean, beste dena galdu egin dut eta hori ez dator bueltan. Horregatik beti esaten dut herriko dendak zaindu egin behar direla, jendea konturatu behar da zelako ahalegina eta zelako lan handia den denda edukitzea. Gogorra da. Eta bestela norbaitek eman diezaiola formula autonomoari egunean zortzi ordu bakarrik eginda negozioa ateratzeko.

Halako ibilbide luzeari atzera begiratua eginez, zer da burura etortzen zaizuen lehen oroitzapena?

57 urte egin ditugu altzari dendarekin. Nik -Jesus Juan- batik bat asko gogoratzen dut anaiak eta biok eman genuen saltoa. Denda handiagoa zabaltzearen erabakia hartzea asko kostatu zitzaigun. Zerotik hasi ginen, inbertsioa handia zen eta buruko-min handia zen ea hari buelta emango genion. Azkenean, gauza aurrera joan zen, urte oso onak izan ditugu, baina azken urteak oso zailak eta oso gogorrak izan dira; 2008tik hona urte oso-osoa gogorrak izan dira.

Egoera gogor horretan zer izan da txarrena?

Esaera batek dio urte txar batek hiru on jaten dizkizula. Guk urte onak izan genituen, baina 17 urte txar izan genituen. Atera kontuak. 50 urte on beharko genituzke horri buelta emateko, eta ez



Jesus Juan Benito, Iker Benito eta Bea Maiztegi Santa Anan.

zen horrela izan. Krisiarekin demasak egiten aguantatu egin behar izan dugu, gainera, pandemia ere erdian tokatu zen. Dena den, hau ez zaigu guri bakarrik pasa, denda guztiei pasa zaie gauza bera.

Altzariak saltzeko eta muntatzeko pertsona eta familia askoren etxeetara sartu izan zarete; zelan hartu izan zaituztete?

Oso ondo. Beti. Lehen, adibidez, hamarretakoa segurua izaten zen, etxe guztietan, gainera. Gogoan dut aitarekin larunbat arratsaldetan joaten bagina, kafea, kopa eta purua ematen zizkigutela. Orain, berriz, askotan etxeko giltzak laga egiten dizkizute barrura sartu, altzariak muntatu eta joateko. Baina orokorrean, bezeroekin harremana beti eduki dugu ona. Beti ahalegindu gara konfiantza ematen jendeari, gauzak ondo egiten, eta, horrek ekartzen dizu, bihar edo etzi, fideltasuna.

Zer da etxe batean ikusi edo bizi izan duzuen gauzarik politena?

Onena beti izan da etxera sartu eta jendeak pozik hartzen gintuela.

Zatarrena?

Oso-oso-oso gutxitan gertatu zaigu, niri, akaso, birritan bakarrik, baina txarrena errespetu falta izan da. Adibidez, behin bezero bat biraoka hasi zitzaion Iratxeri dendan bertan. Baina esandakoa, hori oso-oso gutxitan gertatu zaigu.

Eta bitxiena edo arraroena?

Behin Ordizian, anaia eta neu ordu eta erdi igogailu baten barruan geratu ginen. Etxe berria zen, obra berria, igogailua behin-behinekoa zen, ez dakit zer gertatu zen eta igogailua gelditu egin



Altzari dendako lehen furgoneta.

zen, eta Pello eta biok barruan, orduan ez zegoen mugikorrik, noski eta gu deika. Halako batean obrako batek entzun gintuen eta igogailukoari deitu zioten.

Soraluzen ez ezik, inguruan ere egin izan duzue lan, ezta? Urrunen?

Euskal Herri osoan ibili gara lanean, Nafarroan, Bizkaian, Araban... Urrunen, berriz, leku askotan. Ibili izan gara Coruñan, Murtzian, Salamancan, Valladoliden, Palentzian, Katalunian, Madrilen, Leonen, Kantabrian asko... Baina hori ez zen hilero izaten, urtean bizpahiru bider-edo joaten ginen.

Zelan ailegatzen zineten horren urrutit?

Altzariak eramatera joaten ginen, hemengo bezeroek euren jaioterrirako enkargatuta. Kasu batzuetan, etxe osoak muntatzen genituen. Garai batean, adibidez, Galiziara joaten ginen muntatze-lan bat egitera eta han geundela, Soraluzen bizi zen beste batek hango etxeko neurriak hartzeko eskatu, eta hurrengo abuzturako Galizian beste salmenta bat eginda geneukala bueltatzen ginen oporretatik. Denean ibilitakoak gara.

Hainbeste ibilita, makinatxo bat anekdota ere izango dituzue, ala?

Ba adibidez, tokatu zitzaigun behin San Kristobalera -Eibarren, Ipurua ingurura- sofa bat eramatea. Laugarren solairura igo behar genuen. Hasi ginen igotzen eskaileretatik eta lehen pisutik ezin aurrera egin geratu ginen, trabatuta. Berriro ere behera jaitsi genuen sofa, kanpotik laugarren pisuraino poleaz igotzeko asmoarekin. Baina goitik behera esekitokiz josita zegoen fatxada



Maiztegi eta Benito Ezoziko plazan, bigarren eta azken kamioiarekin.



Jesus Juan Benito eta Bea Maiztegi denda aurrean.

**"EUSKAL HERRI OSOAN ETA
ESPAINIAKO LEKU ASKOTAN IBILI
GARA LANEAN"**

**"GARAI HARTAN GINEN MUNTATZE-
LANETARAKO 3-4 PERTSONA ETA
DENDAN 2-3 PERTSONA"**

**"BEZEROEN KONFIANTZARI ETA
FIDELTASUNARI ESKER LORTU DUGU
HONAINO IRISTEA"**

guztia. Ba esekitoki guztiak desmuntatu genituen eta gero igo genuen sofa. Hori ni oso mutikoa nintzela pasatu zen. Beste behin, Soraluzen, joan ginen muntatzera sukaldeko altzari batzuk. Aitak beti esaten zuen altzariak ondo, baina benetan ondo, lotu behar zirela. Adibidez, altzariak lotzeko guk erabiltzen genituen takoek lantzak ziruditen. Ba etxe hartako sukaldean lotu genituen hain ondo altzariak ezen takoak sukaldeko paretan sartu eta pasilloko paretatik irten zirela. Etxejabeak emandako afari-merienda bukatu eta bagindoazenean, pasillora irten ginen denok eta gizonak egundoko sustoa hartu zuen: *mecaguen dios Benito, si esto está lleno de agujeros!* esan zuen. Izan ere, sei zulo pasatu ziren pasillora! Baina aita, saltzaile ona izaki, segituan eta normal-normal esan zion hari, *tranquilo Pedro, mañana vas donde Igone y que te de 5 cuadros!* Anekdoten artean, zein izan da jaso duzuen eskaerarik arraroena?

Ba hasiera-hasieran izan zen. Gure lehen furgonetarekin, hemengo baserritar batek eskatu zidan ea ekarriko nizkion Elosutik zazpi ahuntz. Eta ekarri genizkion, bai, ahuntzak leihotik burua aterata etorri ziren (barre).

Amaitzeko, zer esango zeniekete herritarrei?

Mila-mila esker gurekin izan duzuen konfiantzarengatik eta fideltasunarengatik. Beti ahalegindu gara ahalik eta ondoen gauzak egiten, bai tratatzen, eta baita ondo artatzen ere, eta jakin dezatela bezero guztiek eurei esker lortu dugula honaino iristea, momentu honetara, azken urte gogor hauetan gurekin izan duzuen konfiantzarengatik eta fideltasunarengatik.

"One club man" filosofiarekin bat egiten dut, eta Sora da nire kluba"

IOKIN ARRILLAGA LEHEN TALDEAREN ENTRENATZAILE BERRIA



Iokin Arrillaga oroigarria jasotzen, Alberto Losada eta Iratxe Arzuagaren eskutik. UBANE MADERA ZANGITU

TESTUA: ANDER GOMEZ.

Duela hogeitazortzi urte sartu zen Iokin Arrillaga Aizpuru (Soraluze, 1993) Soraluze Futbol Taldean eta ordutik ez du beste armarririk izan bularrean. Ia rol guztietan zapaldu du Ezoziko futbol zelaia: jokalaria, epaile, kategoria gazteen entrenatzaile, kapitain... eta, orain, nagusien taldearen gidaritza hartu du.

Pasa den igandean, denboraldi berriaren aurkezpen ofiziala egin zuen klubak eta aitoritza egin zioten, hainbeste urtez klubari lotuta egoteaz gain, partida gehien jokatu dituen jokalaria izatearren.

Nola bizi izan zenuen omenaldia?

Egia esan, ez nuen espero. Sorpresa izan zen, jokatzeari utzi nionean jada errekonozimendu moduko bat egin zidatelako: denboraldi

amaierako afarian besoko berezi bat oparitu zidaten, klubera batu nintzen denboraldia (2005-06) eta azkena (2024-25) grabatuta zituen.

Hogei urte, azkar esaten da...

Bai, 11 urterekin hasi nintzen jokalaria moduan eta 31 urterekin laga. Gainera, hogei urte horietako hamahiru entrenatzaile moduan ere eman ditut: jubenilak entrenatzen hasi nintzen Soran, gero Elgoibarren urte bat egin nuen eta gainontzeko guztiak hemen, kadete eta jubeniletan.

Ziur klubera sartu aurretik ere zale izango zinela.

Txiki-txikitatik. Berez nire familian ez da egon futbolerako grina handirik, eta Txurruken aldean bizita, urruti geratzen zitzaidan Sora. Baina Ezozibiden bizi zen Andoni Odriozola

lagunak zaletu ninduen, eta elkarrekin igotzen ginen Ezozira. Akordatzeko oso goiz joaten ginela, batzuetan partida hasi baino ordu eta erdi lehenago, gainontzeko umeen aurretik heldu eta markagailuaren arduradunak izateko.

Eskuz aldatu beharreko markagailua zegoelako orduan, ezta? Jokalarien aulki atzean.

Horixe bera. Guretzako toki berezia zen, jokariengandik oso gertu geundelako eta entrenatzailearekin berba asko egiten genuelako. Oker ez banago *Toñin* zegoen garai hartan, Antonio Galeano elgoibartarra, gerora nire entrenatzaile izan zena erregionalean.

Gogoan daukat garai hartan entrenatzailearen figura erreferentetzat neukala. Herriko

taldean jokatzearekin amesten genuen denok, baina lehen taldearen buru izatea ikaragarria iruditzen zitzaidan, eta ezinezkoa aldi berean.

Bada, bete zaizu txikitako ilusio hori.

Bai, baina ez pentsa bakarrik txikitakoa denik. Urte hauetan guztietan, kategoria gazteak entrenatzen, formakuntzak jasotzen, entrenatzaile titulazioak ateratzen... ilusioa hor mantendu da.

Orain dela urte batzuk, Mondra taldeko entrenatzaile batek esan zidan "zeu zara hurrena", eta heldu da momentua. Hori bai, ez nuen espero hain gazte izanda ailegatzea.

...eta zelan ailegatu da?

Proposamena egin zizuten ala zuk aurkeztu zenuen zure burua?

Momentu horretan lehen taldearen gidaritzaz hartzeko kapaz ikusten nintzen eta baneukan aurkezteko ideia hori buruan bueltaka. Baina kluba aurreratu zen, eurek proposatu zidaten.

Taldekide ohiek zela hartu dute berria? Zaila izango da taldekide

"TXIKITAN, SORAKO JOKALARI IZATEAREKIN AMESTEN NUEN, BAINA ERREFERENTE NAGUSIA ENTRENATZAILEA ZEN"

eta lagun izatetik eurei aginduak ematera pasatzea.

Ba, kontua da bazekitela, niri ezer esan aurretik. Behin zelaira igo nintzen eta guztiak ikusi nituen zuzendaritzarekin bilduta. Arraroa iruditu zitzaidan, ez nindutelako abisatu, eta zerbait susmatu nuen. Handik gutxira heldu zitzaidan proposamena, eta modurik aproposena iruditu zitzaidan, jokalaria guztien onespenerekin egin zelako.

Denboraldi hasierako emaitzek uste on hori berresten dute...


Bai, lau partida jokatu ditugu eta laurak irabazi. Horietatik hiru lagunartekoak izan dira eta pasa den astean jokatu genuen ligako lehenengoa. Etxean izan zen, Elgoibarren kontra, eta 2-0 irabazi genuen. Ezin gehiago eskatu.

Emaitza horiek hasierako urduritasuna kenduko zizuten...

Ez pentsa hain urduri nengoenik. Urduritasuna baino, irrika sentitzen nuela esango nuke. Guztia zela aterako zen jakiteko irrikaz nengoen.

Eta zelan ikusten duzu etorkizuna?

Kategoriaz jaitsi berri gara, eta ni entrenatzaile izanda igoera lortzea eta pixkanaka taldea handi bihurtzea da asmoa. Ez naiz gauzak txartu orduko ospa egiten duen horietakoa, luzerako proiektu bezala ikusten dut. One club man filosofiarekin egiten dut bat, eta Sora da nire klub bakar hori.



Alboko sakean, kapitain. S.F.T.



Beteranoen partidaren epaile. I.A.



Odriozolarekin multikirolean. I.A.

Ipuinen eguna

ZAPATUAN MUNDUKO IPUINEN II. EGUNA OSPATUKO DA HERRIAN

TESTUA ETA ARGAZKIAK EGOITZ
UNAMUNO

Zapatuan, munduko hainbat bazterretatik ekarritako istorioz beteko dira Soraluzeko kaleak, Munduko Ipuinen II. Egunean. Pil-pilean Euskaltzaleen Elkarateak, Udaleko Kultura Batzordeak eta Udal Liburutegiak antolatu dute ekimena eta iaz bezala, gonbidatu dituzten kontalariak hainbat hizkuntzatan kontatuko dituzte istorioak.

Lau emanaldi, lau txokotan

Aurten, antolatzaileek lau kontalari gonbidatu dituzte herrira eta kontalariok lau hizkuntzatan eskainiko dituzte euren emanaldiak: galizieraz, azerieraz, valentzieraz edo katalanez eta euskaraz. Antolatzaileen esanetan, "Soraluzen hizkuntza asko berba egiten dira eta ipuin-festak aniztasun horren aitortza egin nahi du, hizkuntz komunitateen arteko hartu-emanak sendotuz",

Emanaldi bi goizez eskainiko dituzte: 11:00etan, *Joan-etorriko istorioak* Larraitx Urruzolaren (EH-Galiza) eskutik




Kontakizuna elizpean, iazko ipuinen egunean. PIL-PILEAN

erresidentzia parean eta 12:30ean, *Món Txicotet, ipuinak josten* emango du Ester Povedak (EH-Valentzia), eliz atarian. Arratsaldean, berriz, beste bi emanaldi izango dira: 17:30ean, *Azeriaren kontuak*

**EMANALDI BI GOIZEZ
ESKAINIKO DITUZTE
ETA BESTE BI
ARRATSALDEZ, DENAK
KALEAN**

Tarana Karimen ahotik (EH-Azerbaijan), Plaza Barrixan eta 18:30ean, *Inguru minguru, naturarekin bat* Ana Apika eta Intxixu Valbuena (EH) kontalariekin, Kontzejupean.

Kontakizunetan, kontalari batzuek, euren ahotsaz eta interpretazioaz gain, bestelako baliabideak ere erabiliko dituzte. Esaterako, Larraitx Urruzolak txotxongiloak ere erabiliko ditu bere emanaldian eta Ana Apika eta Intxixuk, zuzeneko musika baliatuko dute.



ESKERRIK ASKO, UR-LAGUNAK!

Ura bizia da. Paregabea.
Ongietorria bedi bizia zaintzeko ekarpen oro, bada.
Administrazioek, enpresek, elkarateek, herritarrek... elkarrekin babesten ditugu ibaiak, lakuak, hezeguneak, estuarioak, akuiferoak, kostaldeak...
Eskerrik asko, Ur-Lagunak!

UR-LAGUNAK.
URA DA. GU GARA.

URA
UR-AGENTS
UR-AGENTS

SUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



"Rosalia de Castroren poema bat errezitatuko dut"

LARRAITZ URRUZOLA TOLOSA IPUIN KONTALARIA

Larraitz Urruzola Tolosak duela 35 urte ekin zion ipuinak kontatzeari, eta txotxongiloak erabiltzen ditu bere istorioei bizia emateko. Tolosarra da jaiotzez baina 1983tik Galizan bizi da, Santiagon. Han ere, istorioak kontatzen ditu. Zapatuan, propio etorriko da Soraluzeko ipuinen egunera eta *Joan-etorriko istorioak* izeneko saio elebiduna eskainiko du, galegoz eta euskaraz, 11:00etan, Mesedeetako egoitzaren parean.

Noiz eta nola hasi zinen kontalari lanetan?

Antzezten eta txotxongiloekin 1988 inguruan abiatu nintzen eta handik laster, Galiziako txotxongilo taldeekin hasi nintzen lanean. Aurrerago nire proposamen propioak prestatzeari ekin nion eta ordutik konbinatzen ditut ipuin kontaketa saioak txotxongilo emanaldiekin.

Zer alde dago ipuin bat irakurtzetik kontatzera?

Biak dira interesgarriak. Irakurketa ahotsean fokalizatzen da eta kontaketa antzeztua gorputz osoan. Gorputz osoarekin interpretatzean, *laugarren pareta* puskatzen da zuzeneko elkarrizketa sortzen delako publikoarekin. (*Laugarren pareta* esaten zaio antzerkian, komikigintzan, telebistan edo bideojokoetan ikuslearen eta protagonisten artean dagoen horma imajinarioari.)

Zein da zure kontatzeko modua?

Narradore edo irakurle bakoitzak badu bere kontatzeko modua.



Narrazio teknikak garrantzi handia dute. Nire kontatzeko era da zuzeneko elkarrizketa izatea publikoarekin, ahotsa aldatzea, objekturen bat erabiltzea animaziorako... Objektuena ilustratzeko beste era bat da. Batzuk eserita kontatzen dute nik ezin dut eserita egon.

Zein istorio kontatuko duzu zapatuan?

Ezin dut spoilerrik egin (barreak). Erabiliko ditut txikitatik entzun ditudan gauzak Euskal Herrian eta Galizan. Lo kantak euskaraz eta galegoz, Galizako kantu herrikoi bat eta Rosalia de Castroren poema bat ere

"HELDUEI GUSTATZEN ZAIE
ISTORIOAK BARRUAN
ZERBAIT MUGITU DIELA
SENTITZEA"

errezitatuko dut. Nire aitak errezitatzen zuen poema bat da, niretzat oso berezia dena. Hori galegoz baizik ezin dut eman, Rosaliak musikalitate berezi bat duelako. Segalarien mundua ilustratuko dut txotxongilo batzuekin eta antzerkiko atrezzo eszenografiko gutxi batzuekin. Horrez gain, euskarazko eta galegozko abestiak ere kantatuko ditut. Emanaldira datorren jendearen arabera, sakonduko dut gauza batzuetan edo besteetan. Berez, emanaldia prestatua dago 50 bat minutu irauteko baina hori publikoarekin sortzen den konexioaren arabera izaten da.

Saioa helduentzat ere bada, ezta?

Bai eta halako jaialdietan aukera gehiago izaten da helduak ere hurreratzeko. Jendeak txotxongiloak entzun orduko zuzenean pentsatzen du umeentzako direla baina batzuetan gauza konplexuagoak ere kontatzen dira. Bakoitzak daukan heldutasunaren arabera ulertzen du istorioa. Ume txikiak kantua entzutean oso adi egoten dira eta atentzioa galtzen dute hitz sakonetan. Helduei gustatzen zaie sakontasun gehiago, barnean zerbait mugitu diela sentitzea, eman behar zaie alimentu kultural hori.

Nik normalean esaten dut nire saioa bost urtetik gorako pertsonentzat dela baina baldin badator familiaren bat ume txikiagoekin, etor dadila. Hori bakoitzak pentsatu behar du.

"SEGALARIEN MUNDUA
ILUSTRATUKO DUT
TXONTXONGILO
BATZUEKIN"


ZORION AGURRAK



Markel Atxotegi Arruabarrena
Irailaren 17an 6 urte.
Zorionak Markel!
Primeran ospatuko dogu zure eguna, txapeldun. Segi beti bezain jator eta alai. Muxu haundi bana etxeko guztien partez.



Jokin Muñoz Olazabal
Irailaren 25ean 37 urte. Zorionak aitatxo! egun eder eder bat euki eta merezi dozun bezela ospatukou. Patxo haundi bat. Julen eta Sara.



Julen Aristi Sanchez
Irailaren 5ean 7 urte. Zorionak Julen!! 7 urte ia! Jarraitu beti bezain alai!! Muxu haundi bat familia guztiaren partez !!



Peru Soriano Sebal
Irailaren 27an 9 urte. Zorionak surfer! Ondo ondo pasaukou zure egunian. Patxo pila bat familia guztian partez. Asko maite zaitugu.



Saioa Unanue Varela
Abuztuaren 18an urte bat. Zorionak bihotza!! Asko maite zaitugu!! Etxekoan partez.



Aiora Elizburu Guenetxea
Abuztuaren 7an 44 urte. Zorionak laztana! Pasatu egun eder bat. Etxekoan partez.



Suar Blanco Elizburu
Abuztuaren 4an 14 urte. Zorionak maitia! Etxekoan partez.



Oinatz Caballero Ruiz
Abuztuaren 29an urte bat. Zorionak gure bizipoz txikixari!



Iñaki Larrañaga Macias
Irailaren 7an 58 urte. Zorionak Iñaki!



Oinatz eta Eire Beretxinaga Heriz
Irailaren 4 eta 23 an 14 eta 10 urte
Zorionak bikote!! Patxo haundi bana etxekuen partez.

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak
Dionisia Sagasta Rubio
Eduardo Soria Monroy
Jaiotakoak
Nile Akarregi
Ainara Arias Nieto
Rania Labriki
Katalin Berasaluze Fernandez



Consejo Veces de Colegios de Administradores de Empresas
Reduñilla Pinta, Administradores
Carretera Beretxina



ROSA Mª PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna
Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai
eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzen-
bidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Bere etxebizitzaren aldamenean berak soilik erabili dezakeen patio bat dauka nire komunitatean etxejabe batek eta gainera, aurreko jabeak irekitako sarre-
ra zuzena dauka bertara. Jabe berriak, patioaren erabilera onartua duenez, beste
ate bat ireki nahi du bere etxetik patioa. Jakin nahi nuke ate hori zabaldu deza-
keen ala komunitatearen baimena behar duen horretarako. Irekitzeko baimena
izanez gero, egokitze edo instalazio pribatiborik egin ahal izango du patioan?

Erabilera eskusiborako eskubidea aitortua izanik, komunitateak errespetatu egin
behar du. Beraz, jabea, komunitatearen baimenik gabe, ate berri horretatik zein aurrez
irekitakotik sartu ahal izango da bere etxetik patioa. Hala ere, kaltegarriak ez diren
erabilerak baino ez dira onartuko. Izan ere, erabilera berea bakarrik izan arren elementu
komuna da. Beraz, ezingo du, esaterako, erabilera indibidualerako galdara bat ipini,
horrek elementu komunaren kanpoko itxura aldatzen duelako. Beraz, horretarako bizila-
gunen batzordearen baimena beharko luke.

Ondorioa: Komunitarioa den patioaren erabilera eskusiborako baimena
duen etxejabeak ezin izango du instalazio edo egokitzapen pribaturik egin ko-
munitatearen baimenik gabe. Beraz, eman ahal izango dion erabilera izaeraren
arabera onartutakoa da.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



ELIZPE
HORTZ KLINIKA

Informazio gehiago:



Tel. 943 75 25 67

Ekin diogu lan urte berriari!



BELAI TZ
NEKAZAL ETA
INDUSTRI HORNIGAIK



Zakurrentzako
janaria eta
osagarriak



IZAGUIRRE
Igeltzeritza

Eraikin berriak - Kalitatezko emaitza
Erreformak - Era guztietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia - 610 638 913



Kontugest
Grupo

Aholkularitza fiskala - Kontabilitatea
Lan-aholkularitza - Zerbitzu juridikoa
Ticket bai - Outsourcing - Aseguruak

www.kontugest.com

SORALUZE
Mendiola ind. 13
Soraluze

676 556 817 - 943 75 21 38



Euskalzaletasunaren alde:

aras



laibi
ELECTRICIDAD



Soraluzeko AEK euskaltegia

**2025-2026 euskara ikastaroetarako matrikula zabalik
Irailaren 30era arte.**

**16 urtetik aurrerakoentzat MAILA GUZTIAK: A1, A2 ,B1 ,B2, C1, C2
Aurrez aurreko ikastaroak eta barnetegiak, online-ikastaroak...**

AZTERKETA OFIZIALAK PRESTATZEKO AUKERA
(azterketaren zati bat euskaltegia egingo da)

**C1 MAILA PRESTATZEKO 16, 17, 18 URTEKOENTZAKO
BEKA BERRIA!**

A1, A2 MAILETAN BEKA BERRIA

ORDUTEGI ZABALA:

ikastaroak goizez, eguerdian eta arratsaldez (Txandaka aritzeko aukera!)

**Herrira etorri berrientzat, edota azken urteotan iritsi berri direnentzako
HARRERA IKASTAROAK**

Izena emateko hurbildu Soraluzeko AEK euskaltegia Baltegieta 2 helbidea

943 75 11 43 · soraluze@aec.eus